

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 647/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Sonia Vargas Benito aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua izendatzea

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, Foru Aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko aholkulari berezi lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Sonia Vargas Benito behin-behineko langileek betetzekoa den aholkulari teknikoaren lanposturako izendatzea (kode zenbakia: 1122.001). Erabaki honek 2021eko azaroaren 3tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE